



Osakidetza

ARABAKO
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
ARABA



GASTROSTOMIA-ZUNDA ETA -BOTOIA ERABILTZEKO GIDA

Berrikusita: 2026ko Uztailen IO-ENDOKRINO-NUTRIZIOA-30



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD



Aurkibidea

1	SARRERA	2
2	GASTROSTOMIA-ZUNDAREN ERABILERA	3
2.1	MATERIALA	3
2.2	ZAINKETA OROKORRAK	3
2.3	ESTOMAREN ZAINKETA	3
2.4	ZUNDAREN GARBIKETA	5
2.5	BALOIA EGIAZTATZEA	5
2.6	ZUNDAREN BUXADURA KENTZEA	6
3	NUTRIZIOA ETA HIDRATAZIOA EMATEA	6
3.1	NUTRIZIOA	6
3.2	HIDRATAZIOA	7
4	FARMAKOAK EMATEA	8
5	GASTROSTOMIA-BOTOIAREN EDO PROFIL BAXUKO ZUNDAREN ZAINKETA	9
5.1	ZAINKETA: GARBIKETA, BALOIA EGIAZTATZEA	9
5.1.1	GASTROSTOMIA-BOTOIAREN GARBIKETA	9
5.1.2	BALOIA EGIAZTATZEA. <i>Ikusi 2.5 atala.</i>	10
5.2	ELIKADURA ETA HIDRATAZIOA EMATEA	10
6	MATERIALA GARBITZEA, MANTENTZE-LANAK EGITEA ETA BERRIZ JARTZEA	11
7	BALIZKO KONPLIKAZIOAK	12





1 SARRERA

Gastrostomia sabelean zulo txiki bat egitea da, estoma deritzona. Estoma horrek urdaila kanpoaldearekin lotzen du. Zulo horretan zunda bat jartzen da. Zunda horretatik janari likidoa (nutrizio enterala), ura eta sendagaiak sartzen dira.

Hainbat modutara egin daiteke:

- Larruzalean zeharreko gastrostomia **endoskopikoa** (*PEG*)
- Larruzalean zeharreko gastrostomia **erradiologikoa** (*PRG*)
- Gastrostomia **kirurgikoa** (*GQ*)



Iturria: Hemendik egokitua: *Protocolo de manejo del paciente que va a ser sometido a gastrostomía radiológica Percutánea (PRG) para alimentación con nutrición enteral.*
<https://www.euskadi.eus/informacion/publicaciones/web01-a3gripe/es/adjuntos/Protocolo55GastrostomiaRadiologicaPercutanea.pdf>

Iturria: <https://www.scielo.br/j/rb/a/Jjy8SBVsM54M3zshYn5BJJP/?lang=en>

Estoma sortzeko, urdaila sabelaldeko hormari finkatu behar zaio. Hori pexien bidez lortzen da. Pexiek botoi-itxura dute eta berez erortzen dira (1. ARGAZKIA). Hilabetera erori ez badira, Lehen Mailako Arretako erizaintzako kontsultan kenduko dizkizute. Batzuetan bi sutura-puntu erabiltzen dira. Puntu horiek hiru asteren buruan kentzen dira. Zure Osasun Zentroko erizaintzako kontsultan edo Endoskopia Zerbitzuan egingo da (2. ARGAZKIA).



Iturria: Guk egina
1. ARGAZKIA




Iturria: Guk egina
2. ARGAZKIA



2 GASTROSTOMIA-ZUNDAREN ERABILERA

2.1 MATERIALA



60 ml-ko xiringa:
Nutrizio enterala eta ura emateko

10 ml-ko xiringa:
Medikazioa emateko edo zundaren
buxadura kentzeko

10 ml-ko xiringa:
baloiaren putzea egiaztatzeko
(konexio ZURIA)

Paperezko esparatrapua:
zundari eusteko

Aparrezko apositu mehea (Mepilex)

Iturria: Guk egina

2.2 ZAINKETA OROKORRAK

Zaintza, bai zundarena bai estomarena, **egunerokoa** izan behar da.


- Ebakuntzaren ondorengo lehen hiru egunetan, saihestu estomaren ingurua bustitzea dutzatzean.
- Zundarekin edozer egiten hasi aurretik, ezinbestekoa da **eskuak ondo garbitzea urez eta xaboiz**.
- Mantendu **aho-higiene egokia**, egunean gutxienez 3 aldiz. Egin ezazu, nahiz eta ahotik janaririk hartu ez.

2.3 ESTOMAREN ZAINKETA

- **Lehen zazpi egunetan:** garbitu serum fisiologiko %0,9rekin (gatz-ur esterila). Zikinkeria estomatik kanporantz arrastatu. Ondoren, eman disoluzio antiseptiko bat (klorhexidina urtsua, %0,5). Utzi 30 bat segundoz lehortzen.
- **Zortzigarren egunetik aurrera** garbitu estoma egunero ur epela eta xaboi leuna erabiliz. Ez da beharrezkoa antiseptikorik erabiltzea.
- **Ondoren, lehortu ondo ingurua**, estomaren inguruko azala bigundu ez dadin (hezetasunaren ondoriozko biguntzea).



- Egiatzatu egunero estomaren inguruko azala. Begiratu narritadurarik, hanturarik, jariakinik, gorritasunik edo minik dagoen. Halakorik bada, **jarri aparrezko apositu mehe bat** (Mepilex Lite® modukoa), azala babesteko.
- **Mugitu zunda egunero atxikidurak saihesteko:**
 - o Biratu eusteko diskoa blokean, zundarekin batera, erlojuaren noranzkoan eta kontrakoan. Horrela, zunda diskoarekin batera biratzen da.
 - o Mugitu zunda leunki barrurantz eta kanporantz 1 cm



Iturria: <https://metabolicas.sjdhospitalbarcelona.org/noticia/cuidados-requiere-nino-gastrostomia-endoscopica-percutanea-peg>

- Aldatu egunero eusteko zinta itsasgarria (Leucostrip® modukoa) eta ziurtatu diskoa sabelaldeko hormari egokituta dagoela.



Tira adhesiva
(Leucostrip®),

Iturria: Guk egina

- Granuloma¹k agertzea saihesteko, lotu zunda esparatrapuz sabelaldeko hormara, **gorantz begira jarrita**. Zundak ez du tenkatuta egon behar. Estomaren parean egon behar du, inoiz ez beherago. Ez estali gasaz edo aposituz, orbaintzea hobetzeko. Aireztapena ahalbidetu behar da.

Txandakatu egunero zundari eusteko aldea.

¹ Granuloma *gorri edo arrosa koloreko konkor txiki bat da. Estomaren inguruan agertzen da. Orbaintze-ehun gehiegi sortzeagatik eratzen da. Ohikoa da igurtziagatik, narritaduragatik, zundaren tirakadagatik, diskoa gutxi egokitzeagatik edo hezetasun iraunkoragatik agertzea. Hori gertatuz gero, jo Osasun Zentroko Erizaintzara.*



ZUNDAREN EUSTE ZUZENA

Iturria: Guk egina



GRANULOMA

Iturria: Guk egina

2.4 ZUNDAREN GARBIKETA

Gastrostomia-zundaren **kanpoaldea** egunero garbitzen da. Horrela, hauts- eta izerdi-hondarrak kentzen dira. Lehen 7 egunetan, serum fisiologiko % 0,9 erabiliz. 8. egunetik aurrera, ur eta xaboi neutroa baliatuz.

Zundaren tapoiak hortzarteko eskuilatxo bat erabiliz garbitu behar dira.

2.5 BALOIA EGIAZTATZEA

Baloia **iturriko ura/ur destilatua erabiliz** bete behar da, inolaz ere ez serum fisiologikoarekin.

Zundaren baloiaren bolumena lehen aldiz **hilabete igarota** egiaztatuko da. Zure Lehen Mailako Arretako Osasun Zentroko erizaintzako kontsultan izango da.

Hortik aurrera, egiaztapena **bi astean behin egingo da**, ahal dela astelehenetik ostegunera. Saihestu jaiegunak. Modu autonomoan egin ahal izango da.

Baloia egiaztatzeko, **alboko sarrera ESKLUSIBO bat dago (BAL)**. Ez da nutriziorako erabiltzen dena, bestelakoa da. Egiaztapena **10 ml-ko Luer xiringaak erabiliz** (kolore zuria) **egiten da**.

Ateratzen den ur-bolumenak adierazi dizutenarekin bat etorri behar du.

Salbuespenez egiaztapen bat egingo da gailua sabelaldeko hormari doituta ez badago.



Iturria: Guk egina

GASTROSTOMIA-ZUNDA



Iturria: Guk egina

Gailuari eustea baloia egiaztatzen den bitartean



Baloia egiaztatzeko hustu aurretik, eutsi gailuari irmotasunez. Horrela, ateratzea saihestuko duzu. Egiaztatu ondoren, sartu berriro esleitutako ur-bolumena. Adierazitakoa baino ur gutxiago ateratzen bada, baloia hautsita edo porotsu egon liteke. Kasu horretan:

- Zunda esparatrapuz finkatu beharko duzu, baloia berriro bete adierazitako bolumen osoarekin eta 30 minutu itxaron, eta berriro egiaztatu, galerarik izan denetz (**1. ARGAZKIA**).
- Galerarik badago, bete berriro eta deitu adierazitako erreferentziako telefonoetara.
- Galerarik ez badago, egiaztatu berriro hurrengo egunean.



Iturria: Guk egina

1. argazkia



Iturria: Guk egina

2. argazkia

Baloia uraren kolorea horixka agertzen bada, ordeztu adierazitako ur garbiaren bolumenarekin (2. ARGAZKIA).

Pisu-aldaketekin, botoia lasaiago edo askeago edo estuago gera daiteke. Hori gertatzen bada, galdetu Lehen Mailako Arretako erizainari. Baloia bolumena berregokituko dizute.

2.6 ZUNDAREN BUXADURA KENTZEA

Zunda buxatzen bada, **egin garbiketa bat 10 cc-ko Enfit xiringa erabilita (morea), ur epela erabiliz.** Egin presioa xiringaren enboloa baliatuz. **Utzi 15 minutuz eragiten.** Errepikatu eragiketa hainbat aldiz, beharrezkoa bada.

Zundaren buxadura kentzea lortzen ez baduzu, jarri harremanetan zure Osasun Zentroko erizaintzako kontsultarekin. Egin lanegunetan. Astebukaeran eta jaiegunetan, jo Larrialdietara.

3 NUTRIZIOA ETA HIDRATAZIOA EMATEA

3.1 NUTRIZIOA

EZ dira **etxeko janariak** eman behar zundaren bidez. Buxadura eta nutrizio-gabeziak eragin ditzakete.



Zunda bidez elikatzeko egindako **prestakin espezifikoak** daude. Zure endokrinologoak nutrizio-kantitatea adieraziko dizu. Egunean zenbat hartualdi egin behar dituzun ere esango dizu. Nutrizioa bolotan eman daiteke (egunean 4 edo 5 hartualditan). Edo ponpa (erritmoa erregulatzen duen tresna) baten bidez modu jarraituan. Ponpa erabiltzen baduzu, argibideak emango dizkizute. Hura erabiltzen ere erakutsiko dizute.

Nutrizioa xiringaren bidez ematen bada, **ez da kolpetik sartu behar**, baizik eta enboloa poliki eta etengabe sakatuz. Abiadurak minutuko 10-15 ml-koa izan behar du. Hori xiringa bat 5 minututan ematearen baliokidea da. Kronometroa erabiltzea gomendatzen da.

Ez diluitu nutrizioa, kontrakoa adierazi ezean.

Astindu elikagaia eman aurretik. Saihestu botilaren goialdea-muturra ukitzea.

Zunda bidez ematen den guztiak **giro-tenperaturan egon behar du**. Gorde nutrizio-ontziak leku fresko, lehor eta argirik gabean. Ontzia ireki ondoren, eduki estalita hozkailuan. Ez gorde 24 orduz baino gehiago. Atera hozkailutik eman baino ordubete lehenago.

Egon **BETI** eserita edo oheburua 35°-tik 40°-ra altxatuta. Eutsi jarrera horri nutrizioa hartzen duzun bitartean. Baita **ordubete geroago arte** ere.

Nutrizioa, hidratazioa edo medikazioa ematen den bitartean, **saihestu** zundaren **tirakadak**. Zundak ez du oso tenkatuta egon behar.



Iturria: Guk egina

Nutrizio enteraleko hartualdi bakoitzaren ondoren, garbitu zunda 30-50 ml ura erabiliz, buxa ez dadin.

Itxi zundaren **tapoia** prozesua amaitu duzunean.

3.2 HIDRATAZIOA

Hidratazio ona izateko, garrantzitsua da ura zunda bidez ematea. Ura honela eman behar da:

- Nutrizio-hartualdien artean.
- Zure medikuak adierazitako bolumena.
- Ur gehigarria, egarriak, sukarrak edo bero handiak jota bazaude.



4 FARMAKOAK EMATEA

- Farmako guztiak ezin dira eman zunda bidez.
- Ez nahastu sendagaiak elkarren artean. Eman medikamentu bakoitza **banaka eta diluituta**, agindutako ur-mililitroetan. **Garbitu** medikamentu baten eta bestearen artean 10 ml ur erabiliz.
- Eman lehenik formula **likidoak** eta utzi **azkenerako** formula **trinkoenak**.
- **Amaitzean**, garbitu zunda 30-50 ml ur baliatuz. Garbitu arren medikazio-hondarrak ikusten badira, errepikatu garbiketa.
- **Beste medikamenturen bat hartu behar baduzu**, galdetu ea zunda bidez eman daitekeen. Galdetu, halaber, hura diluitzeko ur-bolumena eta nutrizio enteralarekin bateragarria den.
- Medikazioari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ondoko esteketan kontsulta dezakezu:

Apple gailua baduzu:



Eskuragarri hemen:

<https://apps.apple.com/es/app/medisonda-gu%C3%ADa/id1623788068>



Eskuragarri hemen:

<https://apps.apple.com/es/app/deglufarm/id1582442456>

Android gailua baduzu:



Eskuragarri hemen:

https://play.google.com/store/apps/details?id=org.fundacionbiomedica.medisonda.app&pcampaignid=web_share




Eskuragarri hemen:

<https://play.google.com/store/apps/details?id=com.sefh.deglufarm&hl=es>



5 GASTROSTOMIA-BOTOIAREN EDO PROFIL BAXUKO ZUNDAREN ZAINKETA

Estoma jada eratuta dagoenean (jarri eta 4-6 asteren buruan), osasun-taldeak aldaketa bat proposatuko dizu. Gastrostomia-zunda (*PEG*) gailu sinpleago batez ordeztuko du. Gastrostomia-botoia deitzen da. Botoi horrek mugikortasuna eta erosotasuna hobetzen ditu. Botoi gastrikoa silikonazko zunda bat da. Sabeleko azaletik urdaileraino jartzen da. Elikatzeko, hidratatzeko eta medikazioa emateko balio du.



Iturria: Guk egina

Iturria: <https://congresosfnn.com/wp-content/uploads/2022/03/iii-congreso-nacional-tcae/poster-iii-congreso-nacional-tcae/SONDAPEG.pdf>

Botoi gastrikoak ere baloi bat du, gastrostomia-zundak bezala. Baloi hori urdail barruan puzten da iturriko urarekin edo ur destilatuarekin. Eusteko balio du eta botoia ateratzea saihesten du.



Iturria: Guk egina
Botoia globoa hustuta



Iturria: Guk egina
Botoia globoa puztuta

5.1 ZAINKETA: GARBIKETA, BALOIA EGIAZTATZEA

5.1.1 GASTROSTOMIA-BOTOIAREN GARBIKETA

- Garbitu egunero, eta azala edo botoia zikinduta dauden bakoitzean. Erabili ur epela eta xaboi neutroa.
- Lehortu gasa bat erabiliz. Saihestu hezetasuna estoman.
- Egiaztatu egunero estomaren inguruko azala. Begiratu narritadurarik, hanturarik, jariakinik, gorritasunik edo minik dagoen. Behar izanez gero, jarri aparrezko apositu mehe bat (Mepilex Lite® modukoa).



- Egiatzatu egunero kanpoko topea sabelaldeko hormari ondo doituta dagoela. Ez du azalaren kontra lasaiegi edo askeegi ez estuegi egon behar.
- Egin botoiaren biraketa eta kontrako biraketa egunero. Horrela, atxikidurak eta presio-ultzerak saihesten dira. Txandakatu posizio bertikala (etzanda) eta horizontala (eserita erosoagoa da)
- Ez estali botoia apositaz

5.1.2 BALOIA EGIAZTATZEA. *Ikusi 2.5 atala.*



Iturria: Guk egina



Iturria: Guk egina



Iturria: Guk egina

5.2 ELIKADURA ETA HIDRATAZIOA EMATEA

EZ eman janaririk ez medikaziorik zuzenean botoian; erabili beti **luzagarriak**. Luzagarriak botoiari finkatzen zaizkion hodi desmuntagarriak dira. Elikadura eta medikazioa emateko eta gasak kanporatzeko balio dute. Ez da komeni jarrita uztea. Kendu eta garbitu erabilera bakoitzaren ondoren.



Iturria: Guk egina

90°-ko angelua



Iturria: Guk egina


Angelu zuzena



Jartzeko, eutsi gailuari eta lerrokatu bi marka beltzak. Ondoren, sakatu barrurantz eta biratu laurden bat erlojuaren noranzkoan. Kentzeko, alderantziz egin. Eutsi gailuari eta biratu kontrako noranzkoan markak lerrokatu arte.



Iturria: Guk egina



Itxi zundaren tapoia gehiago erabili behar ez duzunean.

Botoiak segurtasun-balbula bat du. Balbula horrek urdaileko edukia ateratzea eragozten du. Balbula irekitzen da luzagarriak konektatzean. Horregatik, zunda estutu edo askatu behar duzu (igarobidea itxi edo ireki) kasua kontuan hartuta. Horrela, deskonektatu edo nutrizioa segurtasunez eman dezakezu.

Luzagarria garbitu ondoren, utzi zunda askatuta. Astindu ur-hondarrak kentzeko. Utzi lehortzen.

6 MATERIALA GARBITZEA, MANTENTZE-LANAK EGITEA ETA BERRIZ JARTZEA

- **ENFIT XIRINGAK (moreak):** elikadurakoak hiru egunean behin aldatzen dira, hondatzen ez badira. Ur- eta medikazio-xiringak astean behin alda daitezke, edo hondatuta daudenean. Erabili ondoren, banandu xiringaren bi piezak. Garbitu eskuz xaboiz eta iturriko ur epelez. Ondoren, urberitu edo uretan eragin, lehortu eta gorde bere ontzian. **Ez sartu ontzi-garbigailuan.**



Iturria: Guk egina

- **BOTOIAREN LUZAGARRIA:** aldatu 10 egunean behin. Garbitu luzagarria erabilera bakoitzaren ondoren, barrutik eta kanpotik xaboiz eta iturriko ur epelez. Uretan eragin eta lehortu.
- **NUTRIZIO ENTERAL JARRAITUKO SISTEMA:** aldatu behar duzu 24 orduan behin.
- **MATERIALA BERRIZ JARTZEA:** Ospitalean lehen egunetarako beharrezko materiala emango dizugu (xiringak edo sistemak). Zure Osasun Zentrorako orri bat ere emango dizugu. Eman ezazu ahalik eta lasterren, materiala eskatzen jarraitzeko.



7 BALIZKO KONPLIKAZIOAK

ARAZAO	KAUSA EDO ARRAZOIA	BEHARREZKO EKINTZA
Estomaren inguruko narritadura edo infekzioa	Presio handiegia, urdail-edukiaren irteera edo higiene-falta	Estoma garbi mantendu. Balioetsi gunea babestea aparrezko apositu mehearekin (Mepilex Lite® modukoa).
Urdail-likidoaren irteera	Zuloa zabaldu da, kanpoko topea egokitu gabe.	Doitu topea eta egiaztatu baloiaren puztea.
Baloia hustu egin da	Baliteke baloia zulatuta egotea, bolumen-galera.	Ikusi baloiaren zainketen atalean (2.5).
Zundaren kanpoko topea ondo doitu ez egotea	Baliteke baloia zulatuta egotea, bolumen-galera.	Egiaztatu baloiaren puztea. Zuzena bada, doitu kanpoko topea eta eutsi hurbiltze-zinten bidez.
Zundaren buxadura	Zunda garbitzea ahaztea, garbiketa nahikoa ez izatea edo pintzatze okerra.	Ikus zundaren zainketen atalean (5.1).
Zunda irtetea	Ustekabekoa edo nahita.	1.) Ahal bada, sartu berriro zunda edo neurgailua (baldin baduzu) eta eutsi esparatrapuz. 2.) Ez sartu EZER zunda bidez. 3.) Ez izutu. Jarri harremanetan “ <i>DATOS DE MI DISPOSITIVO</i> ” orriaren arabera.
Beherakoak	Nutrizio enterala gaizki ematea. Prozesu infekzioso.	Jarri harremanetan Nutrizio Zerbitzuarekin. Egiaztatu emateko abiadura egokia (3.1)
Idorreria	Hidratazio urria. Jarduera fisiko txikia.	Ziurtatu hidratazio egokia. Mantendu eguneroko jarduera fisikoa.
Okadak edo abdomeneko distentsioa	Fluxu azkarra, urdaila motel hustea, zundaren migrazioa.	Ziurtatu bolumena agindutako abiaduran ematen ari dela.
Zunda ez da erabat biratzen	Zunda zuloari itsastea.	Jarri harremanetan zure Osasun Zentroko Erizaintzako kontsultarekin.
Sukarra	Baliteke infekzioa izatea.	Jarri harremanetan zure Osasun Zentroko Erizaintzako kontsultarekin.
Granuloma	Zundaren etengabeko igurztea, zunda/botoia tenkatuta egotea medikazioa, elikadura edo ura ematean.	Jarri harremanetan zure Osasun Zentroko Erizaintzako kontsultarekin.